

Batzar Nagusia izan du gaur

**EROSKI-K ETAPA BERRI BATI EKIN DIO, ETA
ASMOA DU BESTE 2.000 BAZKIDE GEHITZEA
KOOPERATIBARA DATOZEN 5 URTEETAN**

- EROSKI 240 milioi euro inbertituko ditu 2021-2024 Plan estrategikoan, beste 300 denda irekitzeko eta bere sarea eraldatzeko; horrekin, iparraldean duen posizioa sendotu nahi du
- Batzar Nagusian urteko kontuak eta 2020ko ekitaldiko emaitzen banaketa onartu ditu
- Ordezkarien Batzar Nagusiak, kooperatibaren erabaki organo gorenak, 250 langile bazkide eta 250 kontsumitzaile bazkide deitu ditu bilkurara

Barakaldo, 2021eko ekainaren 16a.- [EROSKI](#)k Ohiko Batzar Nagusia egin du gaur arratsaldean, Barakaldon (Bizkaia); bertara deituak ziren Langile Bazkideen eta Kontsumitzaile Bazkideen kolektiboetako 500 ordezkari.

2020an amaiera eman dio 2008an abiatutako etapari

Agustin Markaide lehendakariak ekitaldian erdietsitako helburuak errepasatu ditu, eta nabarmendu du orain hamabi urte abiatutako birdimentsio eta berrikuntza aldia itxi dutela.

Markaidek gogorarazi du *"2020a ezohiko urtea izan dela. Batik bat, COVIDaren ondorioz, baina baita EROSKI ezohiko baldintza horietan bete duen zereginagatik ere"*. Taldeak 2020an hamabi urte honetako etekin operatiborik handiena izan du, 252 milioi eurotaraino iritsi arte. EROSKIren Batzar Nagusiak onartu egin ditu bai kooperatibaren urteko banakako kontuak eta bai EROSKI taldearen kontu kentsolidatuak, baita 2020. urteko ekitaldiaren Kudeaketa Txostena ere.

"Urte zenbait generamatzen hobetzen, eta erresistentzia eta eraldaketa plan bat eta bestearen emaitza da, zeinak gure negozioa birdimentsionatzen amaitu baitu baina baita haren erakargarrtasuna eta lehiakortasuna hobetzen ere. Etapa hau gaintu badugu, ahaleginaren, elkartasunaren eta sakrifizioaren kultura kooperatiboari esker gaintu dugu. Etapa hau amaitzen ari da, eta indartuta atera gara, edozein gorabeherari modu hobean erantzuteko moduan", esan du lehendakariak.

Emaitza negatiboen banaketa: Erreserba Negatibo Indibidualizatuaren sorrera 5 urtean konpentsagarria

EROSKI emaitza negatiboak banatzeko aurrez hartu izan dituen irizpideei jarraituz, kooperatibako bazkideek iazko ekitaldia onartu dute Nahitaezko Erreserba

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

Funtsaren, Borondatezko Erreserba Funtsaren eta bazkide bakoitzaren Erreserba Negatibo Indibidualizatuaren kargura. 2020ko ENIak 250 milioiko saldoa du, eta konpentsatu ahal da datozen bost urteetako etekinekin, aurreko ekitaldietan gertatu den bezalatsu. Hori guztia kooperatibaren estatutuetan ezarria dagoenarekin bat etorritz.

Etapa berria, 2.000 bazkide berrirekin eta 300 denda berrirekin posizioa indartzeko

EROSKIko zuzendaritza nagusia, Rosa Carabel, bazkideei zuzendu zaie hauxe gogorarazteko: *"Azken urteetan lorturiko guztia lortuta, berretsi egiten da zein garrantzitsuak diren bazkide langileak eta kontsumo bazkideak. EROSKI iraganean baino mugapen txikiagoarekin abiatuko du etapa berria, baina betiere enpresa kooperatiboarekin dugun konpromisoan jarrita ardatza, xedea izanik bazkideen eta gizartearen aldeko eraldaketan eragile aktibo izatea".*

EROSKI iragarri duenez, 2.000 lagun inguru gehiago nahi ditu kooperatibako bazkideetan datozen bost urteetan. *"Kooperatibara jende berria sartzea lehentasunezko helburu soziala da"*, esan du Rosa Carabelek.

Era berean, EROSKIren asmoa da denda gehiago irekitzea (300 inguru) eta sarea eraldatzen jarraitzea. Horretarako, 420 milioi euro inbertituko ditu 2021-2024 Plan Estrategikoan. Carabelek azaldu duenez, *"gizartea eta kontsumitzailea bizkor aldatzen ari dira, eta saltzaileok haien neurriko erantzunak eman behar dizkiegu, iraganetik bestelakoak izango diren erantzunak. EROSKIren eredu komertzial berriek apustu argia egingo dute tokiko produktuen, produktu osasungarrien eta produktu iraunkorren alde".*

Aurrez kontsumitzaileen eta bazkide langileen partaidetza prozesu zabala

Arratsalde honetako batzarrean, EROSKIko Bazkide Langileek eta Bazkide Kontsumitzaileek egindako prozesu parte hartzaile zabal bat amaitu da, zeina, bere antolamenduan, COVID-19ari aurre hartzeko segurtasun neurriek baldintzatua egon baita, eta guztira 30 prestakuntza batzar egin dituzte 135 puntutan konexio digitalak ginez.

EROSKIren Kontseilu Errektoreko presidentek, Leire Mugerzak, hauxe gogorazi du: *"Gure printzipio kooperatiboak dira elkartasuna eta kooperazioa, eta inoiz baino indar handiagoa hartu dute gure jardueran eta gure pertsonengan pandemiak markatutako urte horretan; hain zuzen ere, gizartearentzako unerik zailenetan eta gehien behar izan duenean. Izan ere, gure erakundearen berezitasunari esker, indartsu heldu diogu ezjakintasunezko egoera honi, eta gure eginahala kolektibotasunaren mesedetan jarri dugu. Harro egoteko modukoa da, proiektu hau osatzen duten guztiei eskerrak emateko modukoa, eta horrek datozen erronkei*

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

konfiantzaz heltzen lagundu behar digu". Era berean, Mugerzak kooperatibaren gobernantza eredua nabarmendu du: "Bazkide langileen eta bazkide kontsumitzaileen erabakimenak gure proiektuaren bidea markatu du, eta nolako eraginkortasuna duen eta nolako ekarpenak egiten dituen erakusten ari da; horri esker baita EROSKI gaur egun erreferentziazkoa bere sektorean eta baitago gure erakundea elkartasunarekin eta gizarte ongizatearekin konprometituta".

EROSKIri buruz

Kooperatiba izaerako Espainiako lehen banaketa taldea da EROSKI, eta erreferentziazko operadorea Espainia iparraldeko merkatuan, besteak beste Galizian, Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan, Katalunian eta Balearretan. 1.624 saltokiko sare komertziala du. Saltoki motari dagokionez, baditu supermerkatuak, hipermerkatuak eta cash & carry-ak eta, horretaz gain, gasolindegia, bidaia bulegoak eta kirol ekipamendurako dendak ere bai eta bere online supermerkatua. Era berean, sei milioi Bezero Bazkide baino gehiago ditu, eta 33.000 langile baino gehiago (bazkide kooperatibistak, bazkide langileak eta frankizia-hartzaileak).

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)